

MENDITXIKI SAIBI ELURRETAN

Alpeetik heldu berri, familia bila datorkit Loluko aireportura, hau pozat "Alta bagoaz elurretar!" proposatzen dit gure zazpi urteko semeak. Nola ezetz esan hornelako proposamenari! Jan gabe bagoaz hirurok zuzenean Urkiola aldera. Mendatearen bi aldeetan bidaude bi ligoera apropos elurrarekin gozatzeko: Urkiolamendi eta Saibi. Gaurkoan azken honetara igoko gara.



TESTU ETA ARGAZKIAK



Joseba Calzada "Igoratu"
(Bilbao, 1976)

Naturari dion maitasuna familiaren baserrian hasi zen, Bermeoko Igertu baserrian, hain zuzen. Betidanik gustabiztan zalo Kirila, hinez ere mendian egiten bada freguloko eskalada, ertzak, zeharhideko eska, BTT, orientazioa, abentura-ralidak... J. Ben jardueren bloga: <http://igoratu.blogspot.com>

Elurretan txirrista ederraz gozatz paraje ezin hobeak

Gaurko txangoa Urkiolako mendateean hasiko dugu. Mafiarriatik bagatoz BI-623 errepidea jarraitu behar dugu aldapan gora, txirrindularien artean bere profil izugarriagatik ezaguna den mendatea igota. Mendatearen beste aldetik bagatoz aldi, Otxandio-tik igo beharko dugu.

Urkiolako santutegiaren ondoan aperkaleku batzuk daude eta gorago beste toizahar-

lago bat. Hala ere, bisita asko jasotzen duen gunea denez, kontuan izan behar dugu inguruau dauden beste aperkalekuetan aperkatzeko aukera. Mendatearen ondoan, santutegiaz gain, umeen jolas parke bat daukagu baita, Toki Alai parketxean, Urkiolako Parke Naturalaren interpretazio gunea ere hai.

Ilos dezagun ha, ibilbidearen nondik norakoa.

17:00 (00,0 km) Urkiolako mendatetik (710 m) inten eta mendebalderantz abiatu gara, Toldi Alai parketxea dagoen tokira. Metro batzuk heldu aurretik, eskualdeko egin dugu porlanezko pista bat jarraituz.

Laster bidean arrasto txuri eta horiak aurkitu ditugu, PR-BI 83 Legarmendiako ibilaldi handiaren ibilbidea adierazten


duteak. Biibide hau Saibiko lubaketatik, Leungana menditik eta Legarmendiko karstetik igarotzen da Belatxidetaraino. Patakon bidelapuraren eremua zen hau XIX. mendean. Beragandik hauxe esaten zuten: "Tapurre zan beie, errukitzue. Usabamri kendu eta alargunei emon". Garaiko "Robin Hood" euskalduna.

Elurretan aztarna eginez egin dugu aurrera; aurreko elurteei esker gaurkoan inguruari ditugun mendi guziak txuriz daude jantzita, ikuspegi paregabea osatuz. Basoan barneratugara bidezidor markatua jarraituz, Saibi mendia hegoaldetik inguratzen duena, aldapa leunduz.

Basotik zelaira inteterakoan poste adierazle batera heldu garenean azkeneko mialda geratzen zaigu. Momentu honetan bi kilometro eginda ditugu abiapuntuiskirten garenetik. Iparrerantz abiatu gara Saibiko gailurrean dagoen harrizko gurutzea jomuga dugula.

Azkeneko aldapa honetan lurrean guda garaiko hainbat zulo aurkitu ditzakegu, batzuk Francoren aldekoen eskalizunez bidalitako italiar eta alemaniar hegazkinetik botatako bonbek egindakoak, eta

Saibiko gurutzea begira



Untzillatx koloretsua

beste batzuk lehergailu horietatik babes-teko gudariekin eraikitako lubakiak. Saibitik milizianoek Urkiolako pasabidea kontrollatzen zuten, hau puntu nagusia baitzen. Bizkaialara sartzeko. Gudu nagusia 1937ko spirilean burtu zen eta bertan milaka pertsona zentzu ziren. Guda bukatu ondoren, garaleek gaur egun ikusi dezakengun harrizko gurutze erraldoia eraiki zuten hildakoen omenez. 1976an, espainiar estatuak diktadura-garaia bukatu ondoren, gurutzeari plaka bat erantsi zioten. Errepublika defendatu zutenen orogain.

18:15 (02,8 km) Guda garaiko sarraskien inguruko gorabeherak aipatzen di-da batetan heldu gara Saibiko (954m) gailurrera. Tontorretek inguruko mendien ikuspegi izugarria dago: iparretik ekialdera Eskuagabatx, Mugarraga, Oiz, Untzillatx, Astobizki, Alluitz, Urkidiola mendi, Anboto, Irubaxeta / Ipitze eta Oriol besteak beste; mendebaldean aldiz, Gorbeia, Aldamin eta Lekanda dira ragusi.

Jaitxi surrenik, dagoen elur pila aproba txatzatzut joosten eman dugu tarte polit bat, elur panpinak eginez. Itzulerako tokia beretik egin dugu, baina oraingoan zelai txuria

txirrista moduan baliatuz, ebeko txiliden gozamenerako.

Itzulerako bidean aurrez aurre daukagu Alluitz eta Anboto elkartzen dituen kareharriko biokareezuma eta, arreta handiz begiratuz gero, Mariren irudi etzana eta relikusidatetea: Urkuluko arrakala lepoa, Infernuko zubi ahoa eta Alluitzko gailurra sudura osatuz.

19:10 (05,5 km) Eguneko azken argi izpiekin Urkiolako mendatera (710m) heldu gara eta ondoan dagoen Antonio Santuaren santutegia bisitatzeko aukera izan dugu.

DATUAK

Luzera: 5,5km

Desnivel: 244 m

Denbora: 2h 10min (geldialdiekin)

Track:

